

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Hasierako onespena ematea zerga ordenantzei

Udalbatzak, 2019ko abenduaren 11n egindako bilkuran, zerga ordenantza hauek aldatzea erabaki du:

- Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza.
- Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza.
- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza.
- Zerbitzu publikoak ematearen eta jarduerak egitearen prezio publikoak arautzen dituen ordenantza.
- Zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza.
- Zerga zorren eta zuzenbide publikoko gainerako zorren geroratzea eta zatikatzea arautzen dituen ordenantza.

Espedienteak Udalaren Idazkaritzan egongo dira ikusgai hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesa dutenek epe horretan egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erabaki hau behin betikotzat joko da, erreklamaziorik aurkezten ez bada. Erreklamazioren bat badago, beste erabaki bat hartuko da horren gainean.

Argitara ematen da hau, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoa betez.

Langraiz Oka, 2019ko abenduaren 18a

Alkate-lehendakaria

JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA